

KREOSOTAZ TRATATUTAKO ZURAK: INTERESEKO INFORMAZIO-SANITARIOA



Kreosotaz tratatutako zura erostekotan bazabiltza, irakurri informazio hau adi-adi, eta zalantzarik izanez gero, galdetu

Kreosotak substantzia kimiko ugariaren nahasketak dira, egurra tratatzeko erabiltzen direnak gehiago iraun dezan, mikroorganismo, hezetasun eta hotzetik babestuz. Arazoa ematen dute, ordea, zuzen erabiltzen ez badira, osasunerako eta ingurumenerako ondorio negatiboak eraginez. Horregatik, araudi komunitario batek erregulatu ditu bere erabilera, eta berarekin tratatutako egurra zertarako den.

Garrantzitsua da zera jakitea:

Kreosotaz tratatutako zura, orokorrean, jendeari saldu dakioke bigarren eskuko merkatuan (berrerabilpena). Mugatzen dena da egur hori zertarako erabiltzen den (bigarren eskukoa edo lehenengo aldiz merkaturatutakoa izan).

Ezin da erabili:

- Eraikinen barruan, xedea edozein izanda ere.
- Jostailuetan.
- Joku-zelaietan.
- Kanpoko parke, lorategi, eta jolaserako eta aisialdirako instalazioetan, baldin eta, sarritan azaleko kontaktua egoteko arriskua badago, publiko nahiz pribatu izan.
- Lorategiko altzari, kanpineko mahai, eserleku, eta bestelakoetan.
- Honako hauek egin eta birtratatzeko: laborantzako edukiontziak, gizakiak edo animaliak kontsumitzeko diren lehengai, bitarteko produktu, edota bukatutako produktuekin kontaktuan egon daitezken ontziak, edota produktu horiek kutsatu ditzaken materialak.

Saltzaileak debekatutako erabilerean berri eman behar die erosleei.

Zura lehenengo aldiz kreosotaz tratatzean, instalazio industrialak egiten dituzten profesionalak egin behar dute, eta behar bezala erregistratutako produktuekin, egin ere. Egur hauek ezin zaizkio jendeari, orokorrean, saldu.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

- | | | |
|---|-----------------|-----------------|
| - Arabako Osasun Publikoko Zuzendariordeztza.
Santiago hiribidea 11. (01004 Vitoria-Gasteiz). | Tel.: 945017160 | Faxa: 945017179 |
| - Bizkaiko Osasun Publikoko Zuzendariordeztza.
Rekalde zumarkalea 39-A (48008 Bilbao). | Tel.: 944031500 | Faxa: 944031599 |
| - Gipuzkoako Osasun Publikoko Zuzendariordeztza.
Nafarroa hiribidea 4. (20013 Donostia). | Tel.: 943022700 | Faxa: 943022701 |
| - Osasun Publikoko Zuzendaritza.
Donostia-San Sebastián 1 (01010 Vitoria-Gasteiz). | Tel.: 945019201 | Faxa: 945019192 |